

Trifsthauser familia

XABIER OLEAGA



EGUNERO ailegaren zagu egunkari eta komunikabideetara halakoren bat. Duela egun pare batekoak hauxe zekarren titularran: «Alemaniako Justiziak hogei heldu prozesatu ditu hiru urtetan hamabi haurrez abusatzeagatik». Akusatuak haurren guraso, senitarteko eta hauen lagunak dira. Bavierako estatuko herri txiki batean gertatu da, Arsbach-en hain zuzen ere. Eskandaluaren sorreran Trifsthauser matrimonioa dago, diru iturri gutxi eta bost seme-alaba. Berritoez klase soziala.

Haurrekiko afizio sexuala, eraso sexual gisa baino ulertu ezin daitekeena alegia, ez da, bestalde, pobreei bakarrik dagokiena. Aberastek, hala ere, orainarte dakigunetik, badirudi besteen seme-alabengan bilatzen dituztela biktimak, gehienetan pobreak —berriro— Feriako Dukearen kasua, esate baterako, inestozko erasoak gabeztuz gertatzen omen diren bitartean.

Trifsthauser-tarren alaba zaharrenak 9 urte baino ez omen zituen bere ama —ama, diot— sexu objektu gisa begiratzen hasi zitzionean. Amak aitortutako joeran bat omen zetorren aita ere, 9 urteko neskalitxoarekin lehenago eta bere neba-ahizpa gazteagoekin gerorago. Haurrek minetz jilioki hasten zirenean, esparadrabu batez ixten omen zizkieten ahokak.

Argazki eta telebistek egunero dakarkigute Sarajevo eta inguruko herrietan krudeldadeak urrututako haurrak, baina krudeldadeak berez, ongi dakigun bezala, ez du Sarajevoko bezalako gerra esparru deklaraturik behar bere berri emateko, edo munduan deklaratu gabeko gerra asko dagoela onartu beharko dugu. Familia bere errefuxiarako txoko ordez krudeldade areto bihurtzen zaien haurrek, inguruan kasu urdinik gabe eta kamera salartirik gabe, Sarajevokoak inbidiaztera iritsiko zaizkigu.

UEMA

TXILLARDEGI



ORAIN dela urtebetsu egon zen Richard Bourhis gure artean.

Eta bere irizpidea hamaika baldintza pean eman bazigen ere, ideia nagusia hau zen: hizkuntza batek bere lurraldea ez badu lortzen, jai dauka. Hizkuntz irlak eta hizkuntz peninsulak aipatu zizkigun, haietatik abiatuz haue-tara, eta lurralde normalizatuetarantz, joan behar genukeela aholkatuz.

Lehen urratsa, hitz batez, irla normalizatuak lortzea da. Xinplekiago mintzatuz, euskara hizkuntza normalizat eta mintzabide naturalizat izango duten hizkuntz-irlak erakitzea. Irla horiek funtzionalak izan daitezke (elkarreak, eman dezagun, ingurune arrotzean kokaturik ere); edo-ta, ahal den neurrian, udalerririk normalizatuak (Suomin udalerrira hartu zuten normalizazio-gunetzat orain dela mendeabete).

UEMA Eikargoa, hitz batez, gutziaz da profetikoa eta aurrerakoa. Profetismoa eta aurre-rakoitatsuna Euskal Herri euskaldunaren araberako finkatzen badugu. Noski, UEMAn elkartu diren 19 udal horiek, hitz batez, biharko Euskal Herriaren aintzindariak dira. Eta ahalke garria da puntuzko eta «Aberzale» omen diren pertsona eta instituzio batak kasurik batera ez egitea (edo-ta, ahapeka, UEMAn kontra jotatzea).

Hain zuzen ere, jokabide erdaltze horrek oso ondo erakusten du (berriro!) herri hau jaso eta indartu nahi omen duten horiek, non diren eta zein helburu daukaten.

Nik neure aldetik, eta bihotz bihotzez, txalo jotzen diet UEMAtarrei. Aurki izango bide dira 40 udalerririk, gaurok kopurua bikoiztuz. Eta Iparraldeko esaera errepikatuz, hau ditotsuet: «Agian bai!».

EL CORREO ESPAÑOL

Ultrak

Ekialde Hurbileko hiri batean, bertako ia biztanle guztiak ez hiriaren nazioartoko izena ez biblikoa ezagutzen ez duten Hebronen hain zuzen, extremista judu batek Ramadan erdian egunaren amaieran bertako meskitaren inguruan ohi bezala bilduta zeuden kasik berrogeita hamar arabiar hil zituen.

(...) Horra hor politikaren ikuspegiatik garrantzia duen gertaera: beti pentsatu zen balizko negoziatioak goiz ala berandu izango zituen bi oztopo nagusiak izango zirela, alde batek, 1967ko garaipenaren ondoko euforia militarreko egunetan juduek arinkeriaz ezarritako giza koloniak eta, bestetik, Estatuaren hiriburu baterako eta zatiain aldarrikatutako Jerusalem etorkizuna. Beste konponbide bainaagorik ez baitzuten, PAEk eta Israegio Gobernuak *aparkaleku* utzi zuten Jerusalem eta beronen estatusaren inguruko azua, iparramerikarrek gomendatu zuten bezala.

ENRIQUE VAZQUEZ

HEMEROTEKA



Komisaldegira joan, Shiffer, Evangelista, eta Crawfordek sexu erasoak egiten dizkidatela salatu... eta trufatu... eta egia da: zin dagizuet.

FORGES / EL MUNDO

EL DIARIO VASCO

Ukoko fatalismoari

EAEk eta politika ekonomikoak finkatzeko, hori gauza dadin beharrezko eskema egiteko eta, ekimen pribatuarekiko ahalik eta lankidetzat handienarekin, horren

gidarizat eramateko ardura hartu zuten Gobernu autonomoak apustu erabakigarria egin dute: industria garatzea euskal gizarte osoak hain irrikatutako ongizatearen ardatz gisa, eta hori oparotuzan egiatizatuko beste garaieretatik jasotako tradizioa eta egiten jakitea hobetuz oinarrituta. Apustu honek, ordea, badu eragozpen handi bat, alegia auke-

ratutako bidean lanpostuak desagertzea eta aldatzea handiak izatea oraindik ere gauza arrunta izango direla hainbat urtetan zehar. EAEko industrian 50.000 enplegu desagertu dira azken krisiek ekarri duten «hurakan erakitzailerean» astinduen pean, eta oraindik gehiago desagertuko dira.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Etxeberriko aparkalekua

Duela hilabete batzuk Etxeberri auzoko aparkaleku proiektuaren berri iritsi zitzaigun. Udalaren gehiengoaren eta auzokideen babespean jaiotako ideia dugu hau. Honen aurrean ez genuke egokitasunarekin edota negatibotasunarekin erori nahi, baina komenigarri deritzogu hainbat punturi buruzko gogoeta egiteari.

- 1) Halako proiektuei ekiteko beharrezko ikusten dugun Hernani mailako trafiko plangintza baten barne murgiltzea, erabakiak ikusmira zabalago batean pentsatuz hartzeko.
- 2) Ezinbestekoa da kokapena ondo aukeratzera. Ez gaitzen engainatu Etxeberriko parkeak izan ditzakeen kalteak ez dira nolamahi-koak izango.
- 3) Finka dezagun seriootasunez erositasunaren eta beharren arteko muga. Ez al litzateke egokia izango trafiko ikerketak bat egitea? eta kokapen aproposa bilatzeko azterlan kritikiko bat egitea?
- 4) Gogoratu ingurugiroari buruz mintza-

ntza basemortuan predikatzearen parekoa dela. Ez dezagun 'desarrolloa' sistematikoki on-tzat jo, pentsa ditzagun gure ekintzen ondorioak zeintzuk izan daitezken burubelari haietan sartu aurretik (nahiz eta aparkaleku bat bezalako proiektu txikiak izan).

Eta gauzak egin behar baditugu has gaitezen ondo egiten, bada garaia eta.

HERNANIKO EGUZKI TALDE ANTINUKLEAR ETA EKOLOGISTA

Falta zitzaiguna

Gezurra dirudi, baina, gure zoritzar-rako egia da. Euskal Herriari bizi garenoi, eta gure agintariei esker, falta zitzaiguna gertatu zaigu Bizkaia aldean. Badirudi herriarrok jaialdi batera joateko Pradera jaunari baimena eskatu behar diogula, bere gustoko jaialdia ote den galdetuz.

Hemendik aurrera abeslari eta talde euskaldunak ezin izango dira herriz herri ibili (beste oztopo guztiak, ekonomikoak, diske-txeenak, etabar, ahaztu gabe), ezin izango dute musikarekiko, kulturekiko eta gizar-

tearekiko duten jarrerak herriaren aurrean azaldu Pradera jaunaren baimenik gabe.

Gogoraten naiz, garai batean jaialdi bat antolatzeko, antolatzaileek Espainiako Enbaxadara (Gobernu Zibileran hain zuzen) joan behar izaten zutela baimena lortzeko; hau da, zeintzuk, nortzuk zuten jaialdiko partaideak, euskaraz abestu behar zutena espainieraz aurkeztu behar zuten eta abar luze bat ikuskituz horren baimena lortzeko.

Jaun-andreok, garai hartan Franco zen jaun eta jabea gauza gehienetan. Egun gure artean, nor azaltzen zaigu jarrera antzeko-arekin? Pradera jauna, dudarrik gabe nere us-tetan. Eta zuenena?


Pradera jauna, jakingo duzu adierazpen askatasuna zer den, ezta? Jakinararen gainean baldin bazaude ez duzu ezertan aplikatu Anje Duhalderekin hartu duzun erabakia-rekin, edo bestela, espainoliztat jotzen duzu zure burua, ezta?

Amaitzeko, Duhalderi esango diot ez etsitzeko eta aurrera bolie beldurrik gabe.

MIKEL IRAÑETA ENSAOLA

Donostia

GAIA JARRITA



Hebrongo sarraskia

Bi herri hoiak elkarbiztita posible egin nahian, buruzagiak aspalditxoan zebiltzan pake bidean. Hilketa hauekin gorroto hurra berri sartu da tartean; ta galdera bat erantzun gabe geldituz zaigu airean: ez ote dira saiatzen ari ezinezko den lanean?

IRATXE IBARRA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDUI

Kontseilari Ordezkaria: IRAKI URUA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUTZEN ETXEZAHARRETA

Publikatzailea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publikatzaileak: PUBLICITAS

Capitan Haya 1,2.a 28020 Madrid - t: 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tallera: ANTZA S.A. Industrialdien 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria - t: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitze soziala, Publikatzaile eta Administrazioa: Antso Jakinuna, 16-1 / 20010 Donostia - t: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Nafarroa: San Antsoin, 20-1. etze: 01005 Gasteiz - t: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Intate, Monasterio, 45-13. esk. / (Arriostoko Bilbo) / 31011 Iruka - t: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. etzerre, / (Arriostoko Bilbo) - t: 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1/ 503 Posta Kutxanila, / 64100 Baiona - t: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11